

## **Irujo jaio zela 100 urte**

*Euskaldunon Egunkaria*, 1991-09-25: 3.

Manuel de Irujo politikoa nafarra jaio zela ehun urte betetzen dira gaur. Lizarran jaio zen 1891ko irailaren 25ean. Aitagandik jaso zuen abertzaletasunaren sentikizuna. Daniel Irujo Urrak zuzenbideko katedradun zen Deuston; Sabien Aranarekin batxilergoa Orduñako kolegioan egina, eta gero irakasle bezala Deuston geratu zenean, Sabin Aranaren kanpaina abertzalea gogoko izan zitzaion; seme nagusia zen Manuel aitarekin joaten zen Aranatarrek ikustera, eta gero ikasgai berak Deuston egin zituzenez gero, hor jarraitu zuen Sabin hil (1903) eta gero ere txistulari gazte, Eusko Alderdi Jeltzaleko eragin hartan. Don Manuel izan zen gero, Nafarroako diputatu bezala (1919an eta 1921-23), abertzaletasun berria herrialde honetan txertatu zuena. Eusko Ikaskuntzako kide bezala, 1921an, "Caja de Ahorros de Navarra" sortzaile izan zen. Primo de Riverak espetxeratu zuen, eta hau 1930an aginterik gabe geratu zenean bere diputadutara itzuli zen. Errepublika etorri eta Gipuzkoa EAJko zerrendan irten zen diputatu 1933an; 1936ko gerra sortu zenean, buru izan zen Donostiako militarren errendapenerako ekintzetan, eta gero Azpeitiako eusko milizien sorreran; Eusko Jaurlaritza sortzerakoan, euskaldunen izenean Espainiako gobernuan ministrari hautatua izan zen, eta honi esker gizatartu zen gerra une zailean eta urtebete gero dimititu egin zuen gobernu honek euskaldunak defentsarik gabe utzi zituelako. Bigarren mundu-gerratean, Britainia Handian bizi izan zen, eta bertan De Gaullek onartu zuen Eusko Kontseilu Nazionala sortu zuen; gerra amaitu eta gero Europako Herrien Aldeko erakundetan lan asko egin, eta 1970ean Burgoseko epaiketarako mundua mobilizatzen ahalegindu zen.

Franco hil eta bi urte gero, 1977an, itzuli zen: Nafarroako Senatore aukeratua izan zen, eta herrialde honetako parlamentari (1979). Bi urte gero, 1981an, hil zen Iruñean.

Gizon eta abertzale handia izan zen.